


# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko martxoaren 15a

\*



## Kaputxinoen bizitzaren erakusketa

■ Joan den ostiralaz geroztik *Kaputxinoen bizitzaren erakusketa* zabalik da, astelehenetik ostegunera bitartean, Iruñeko San Antonio elizan. Azken urtea lanean eman du Jose Anzin bertako aita kaputxinoak aspaldiko asmoa gauzatzeko. Erakusketa osatzen duten hamaika objektu eta argazkien artean, Damaso Intzakoia, Policarpo Iraizozkoa, Esteban Adoingoa edo

Francisco Ondarra kaputxinoek, besteak beste, aipamen berezia merezi dute San Antonio elizako gelan. Guztiek, sotana ezezik, euskara ere izan dute amankomuneko ezaugarri. Kaputxinoen euskaltzaletasunak, hala ere, bizi izan du bestelako garairik, eta ordenako agintariek gerrarekin batera Euskal Herritik kanpo bidali zituzten horietako gehienak. ■

### Metropoli forala

FELIPE RIUS



Politikari buruzko eztabaida bukatu ondoren, elkarrizketa pertsonalago baten beharra sentitu balute bezala, beren buruaz hitz egiten hasi dira mahaikide batzuk. Batek Peter Panen sindromea aipatu du eta momentu batez iruditu zait aurpegia gorritu egin zaiola, baina agian jateko argiaren afektua besterik ez da. Ez omen du hazi nahi. Behin, duela urte asko, heldutasunaren atarira iritsi zen eta beste aldean zegoenaz ohartu zenean bere betiko mundura itzuli zen, muga zeharkatuz gero ilusio guztiak galduko zituelakoan. Jakina, lanean hasi behar izan zuen eta bere lagunak nola aldatzen ziren ikusi zuen, baina berak betiko gotorlekuan hertsirik segitu du, musikak eta liburuek osaturiko harresiak saltatu gabe. Hari entzutean Peter Panen belaunaldiaz hitz egin

### Peter Panen sindromea

ote daitekeen pentsatu dut. Mahaiaren inguruan gauden guztiok antzeko esperientziak izan ditugu, kale berberetan hartu ditugu poteak urteetan zehar eta oraindik ere betiko tabernetan elkartzeko gara, aurreko asteetako frakasoak ahaztuta, gauak lurralde ezezagun batera eramanez gaituelakoan. Hamasei urte genituenean entzuten genituen musiko berberen disko berriak erosten ditugu, lehenengo andregaiak utzi genituenean deskubritu genuen poema hura irakurtzen segitzen dugu eta goizaldean betiko aitopenen egiten dizkiogu elkari. Batzuetan argazki zaharrak ateratzen ditugu kajoietatik eta barre egiten dugu ile luzeak eta galtza akanpanatuak ikustean. Hori al da urte hauetan aldatu den bakarra?, galdetzen diogu geure buruari. Argazkietan ez dira ageri

garai hartako esperantzak eta proiektuak, baina Peter Pan soilduak ahaztu dituzte beren mundua suntsi ez dadin, betikoak direla sinesten jarraitzeko.

Lagunak Peter Panen sindromea duela esan duenean isilik geratu gara guztiok. Beharbada guretzako inork ez du hazi nahi eta atsegin ez entzuten dugu betiko galdera: baina, hik noiz arraio jokatuko duk pertsona heldu batek bezala? Hala ere, zertxobait aldatu gara pentsatu dut, zinismoak bete du neurri handi batean garai bateko inozentziaren tokia eta orain badakigu Wendy putabata izan daitekeela eta Peter Pan bera ere hiltzaile bat bilaka daitekeela edozein momentutan. Hau guztia bururatu zait, baina ez diot lagunari deus ere esan eta isilunaren ondoren politikaz hitz egiten segitu dugu. X

## \* GURE AUKERAK

## KONTZERTUAK

**Aitzoain:** *El Bolo Feroz* argitalpenaren lehen urteurrena ospatzeko kontzertua dago gaur, gaueko 10.30etan, herriko industrialdean. Joko duten taldeak honako hauek dira: Lagartija Nick, Escarabajos eta Balerdi-Balerdik. Sarrerek 1.500 pezeta balio du.

**Gares:** Fundamental aretoan Juan Perrok eta El expreso de Bohemia taldeak joko dute bihar gaueko 12.00etan. Sarrera 1.800 pezetakoa da, eta, aurretik erosiz gero, 1.600ekoa.

## ZINEMA

**Tafalla:** Cinema Españolen *El niño invisible* filmea botako dute bihar arratsaldeko 18.00etan, eta, etzi, berriz, arratsaldeko 15.45etan. Sarrera 100 pezeta kostako da.

**Iruña:** Olite zinema aretoetan Zinema Beltzari buruzko zikloaren barruan *Angel o diablo* filmea izango da ikusgai ostegunean, arratsaldeko 18.00etan.

## ANTZERKIA

**Iruña:** Gabea antzerki taldeak Piratas lana aurkeztuko du igandean Nafarroako Antzerki Eskolan, arratsaldeko 18.00etan. Sarrerek 350 pezeta balio du. Toki berean eta ordu berean, asteartean Bajo la arena taldeak *Rekreo* antzeztuko du.

## BERTSO SAIOA

**Bera:** Kiroldegian, Nafarroako XXV. Bertsolari Txapelketako finalaurrea izanen da, igandean, arratsaldeko 16.30etan. Bertso kantari ariko dira: Estitxu Arozena, Manolo Arazona, Mixel Aire *Xalbador II.a*, Iñigo Olaetxea, Oskar Estanga, Estitxu Fernandez, Xabier Legarreta eta Xabier Silveira.

## BESTELAKOAK

**Iruña:** Nafarroako Kirol Elkar-teak diapositiba emanaldia eskainiko du, gaur, arratsaldeko 20.00etan Jarauta kaleko 78. zenbakian. Diapositibekin, Mari Abrego mendizaleak bizitzan eginitako bidaien berri emanen du.

**Iruña:** Nafarroako Kirol Elkar-teak datorren igandean, Otsagitik Orhi mendirainoko ibilaldia antolatu du. Izena eman nahi duenak elkarteak Jarauta kaleko 78. zenbakian duen egoitzatik pasatu behar du edo, bestela, 22 43 24 telefonora deitu.

**Iruña:** Nafarroako Kirol Elkar-teak mendiko orientatorako ikastaroa antolatu du. Ikastaroa bost egunetan eginen da: martxoaren 20, 21, 22, 23 eta 24an hain zuzen ere. Aurreneko hiru egunetan ikastaro teorikoa izanen da eta beste bietan praktikoa. Informazio gehiago jaso nahi duenak 22 43 24 edo 22 98 20 telefonoetara dei dezake.

## nafarkronika

Patxi Larrion

## Aholkularitzan

**O**tano jauna, pasa den Nafarroa Oinez, euskararen inguruan bere alderdiak izandako jokabide okerraz damu zen. Pribatuan egindako aitorenak dira horiek. Ekitaldi horretan, Campoyk berak, jendaurrean, euskaltzale zirudien.

Egun, aholkuak behar omen dituzte. Gabezia horri erantzuteko batzordea sortzeko asmoa dute. Gure lurraldean ezagunak dira tankera horretako bilkurak. Nafarroako Kultur Kontseilua aitzindaria izan da eginkizun horretan. Osatzearen dagoen batzordean postua bete lezakeen batek, irratien auzia zela medio, bere dimisioa aurkeztu zuen garai hartako kultur kontseiluan. Beste batzuk hori egiteko gai ere ez ziren izan.


Aholkuak ematea gustagarria izan daiteke; alta, maiz, errieta egitea osasungarriagoa suertatzen da. Gehiegizkoa litzateke abiatu ez denari

kritika falta leporatzea. Batzordearen osaketaz ezer gutxi aurreratu daiteke, zenbait erakunderen izena da ezaguna den gauza bakarra. Erakunde horretako batzuek euskarari galga jartzen jaiok direla aski ongi frogatu dute. Horra hor nire kezka.

Erakunde ofizialen lana eta herri ekimena uztartu beharraz mintzo da. Bistan denez, batzorde honen tankerako egiturak lagungarriak dira uztartze hori erdiesteko garaian. Batzordeak euskalgintzan murgildurik diren sektoreen isla izan beharko luke, ordea. Beteko al da hori? Alfabetatze-euskalduntzea kexu azaldu da.

Euskarak, aholkuak baino gehiago ekintzak behar ditu. Aholkuak ematean, aitzinatzea ahalbidetuko dutenenak izan daitezela. Hala bada, ongi etorria.

Oraindik argitu gabekoen artean, solaserako erabiliko den hizkuntza. Geroak erranen.



## asteko pertsonaiak



Juan Oronoz  
Leitzako alkate ohia

Juan Oronoz Leitzako alkate zenean herrilaren arloan Udalak egin omen zituen irregulartasunen berri eman dio fiskalari Nafarroako Gobernuak, honek delitirik dagoen azter dezan. Leitzako Udalak egin omen zituen irregulartasunak 1994. urteko azaroan atera ziren argitara, garai hartan Udaleko idazkari zenak egindako txosten bati esker. Orduan jakin zen Leitzako Udalak enpresa bati, Azpiroz y Saralegiri, eman zizkiola herriko ia obra guztiak. Garai hartan Eusko Alkartasunako Juan Oronoz zen alkate eta horrek ukatu egin zuen irregulartasunak izan zirela. Herrilaren adjudikazioak aho batez erabaki ziren, alkateak proposatutako formula herriarentzat hobereana zelakoan. Oronozek berriz ere ukatu du irregulartasunak izan zirela.



Federico Tajadura  
Lehendakaritzako kontseilaria

Nafarroako Lehendakaritzako kontseilaria den Federico Tajadura Gubernuak herrialdean euskara sustatzeko abian jarri dituen ekimenak aurkeztu ditu aste honetan. Tajadura, besteak beste, Euskara Batzordearen sorreraren berri eman zuen. Aipatu batzordean euskararen normalizazioan interesaturik dauden elkarte eta erakundeak hartuko dute parte. Era berean, Lehendakaritzako kontseilariak Euskararen Legea datorren irailan aldatuko dela iragarri zuen. Lege horrek Nafarroa hiru eremu linguistikotan zatitzen du: eremu euskaldunean, mistoan eta ez-euskaldunean. Legearen aldatzarekin eremu ez-euskalduna desagertu eta mistoan sartuko da. Hori dela eta, Erriberako ikasleek irakas-kuntza euskaraz jaso ahal izanen dute.

## ahaztu gabe!



## LEHIAKETA

**Elizondo:** Baztandarren Biltzarren 1996ko ospakizunak iragarriko dituen kartela hautatzeko deia zabaldu du Baztandarren Biltzara Elkarteak. 33. ekitaldia da aurtengoa eta, deialdiak dioenez, *Baztandarren Biltzara 96. Elizondon* uztailearen 21ean. Euskarak batzen gaitu leloa eraman beharko du kartelak. Bere neurriak gehien jota 50 x 70 zentimetrokoak izanen dira, eta partehartzaileak offset sistemak onartzen dituen teknika eta kolore guztiak erabil ditzake. Era berean, kartelgileak aurkeztu duen kartelaren gibeletako aldean lema bat jarri beharko du. Honez gain, kartelarekin batera, gutunazal itxi bat eman behar du, kanpoko aldean kartelaren lema ezarriko da eta barnealdean egilearen datuak. Kartelak entregatzeko epea apirilaren 12an bukatuko da, 12.00etan. Lehiaketan parte hartu nahi duenak honako helbidera bidali behar du bere lana: Baztandarren Biltzara Elkarte, 22; 31.700 Posta Kutxatila, Elizondo (Nafarroa).

Epaimahaiak apirilaren 13tik aurrera emanen du jakitera irabazlearen izena. Irabazleak 50.000 pezeta jasoko ditu.

## adi!

## Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

## Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

## Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

## Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaine-tik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritzak, ohiturak.

Bera

# Bertsolari Txapelketako finalaurrea etzi

Zortzi bertsolari ariko dira kiroldegian finalerako txartela eskuratzeko lehian

**N**afarroako Bertsolari Txapelketako finalurreko saioa izanen da igandean Berako kiroldegian, arratsaldeko lau eta erdietatik aurrera. Bertan, Iñigo Olaetxea, Mixel Aire, Oskar Estanga, Estitxu Arozena, Manolo Arozena, Xabier Silveira, Xabier Legarreta eta Estitxu Fernandez ariko dira lehian. Kexux Arzallus, Jean Pierre Mendiburu eta Bittor Elizagoienekin batera datorren igandean Goizetako finalean kantatuko duen boskotea aterako da igandeko saiotik.

Erredakzioa / Iruñea

BERAKO kiroldegiak hartuko du igandean Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalaurrea. Bertan, arratsaldeko lau eta erdietatik aurrera, zortzi bertsolari ariko dira lehian finalerako txartela lortzeko. Iñigo Olaetxea, Mixel Aire *Xalbador*, Oskar Estanga, Estitxu Arozena, Manolo Arozena, Xabier Silveira, Xabier Legarreta eta Estitxu Fernandez izanen dira Beran kantatuko duten bertsolariok.

Hil honen 3an abiatu zen aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketa Baigorriin. Saio hartan Kexux Arzallusek eskuratu zuen zuzenean Goizetako finalean egoteko txartela. Estitxu Arozenak, berriz, Baigorriin egindako saioari esker irabazi zuen Beran etzi abestu ahal izateko aukera.

Hilaren 10ean Atarrabian izan zuten zita bertsozaleek txapelketako bigarren saioan. Bittor Elizagoienek eskuratu zuen orduan Goizuetara zuzenean joateko aukera. Bertsolari baztandarrak badaki Nafarroako txapela buruan eramatea zer den eta Estitxuri berea kentzen saiatuko da, gogoz. Saio berean Xabier Silveira sailkatu zen finalurrerako.

Joan den igandean Altsasun eginiko izan da oraingoz txapelketako azken saioa, hirugarren kanporaketa, alegia. Bertan Jean Pierre bertsolari heletarra izan zen garaile.

Finalurrekoan kantatzeko, berriz, honako seikotea sailkatu zen Altsasuko saioan: Xabier Legarreta, Estitxu Fernandez, Oskar Estanga, Mixel Aire *Xalbador*, Manolo Arozena eta Iñigo Olaetxea.

Altsasun joan den igandean eginiko saio horretan Oskar Estanga izan zen, zalantzarik gabe, sorpresa. Txapelketako bertsolari gazteena da bera, eta igandean lan polita bete eta gero, finalurrekora pasatzeko adina meritu egin zuen. Azkenik, hutsegite gutxien egin zuenak eskuratu zuen puntuazio altuena eta igandeko saioan Mendiburu izan zen. Manolo Arozenak ere arazoak izan zituen doinuekin, bere azken agurrean azaldu zuen bezala.

Etzi arratsaldeko lau eta erdietatik aurrera Beran eginen den finalurrean bost bertsolari sailkatuko dira Kexux Arzallus, Bittor Elizagoien eta Jean Pierre Mendibururekin batera finalean kantatzeko.

Nafarroako Bertsolari Txapel-



Manolo eta Estitxu Arozena aita-alabek Beran kantatuko dute.

ARTXIBOKOA

ketako azken saio hau, hain zuzen ere, datorren igandean, hilak 24, eginen dute Goizuetan. Egun Estitxu Arozena Lesakako

bertsolari gaztearen esku dagoen txapela eskuratzen saiatuko dira saio nagusira ailegatuko diren bertsolariak. X

Aribe

## Irati Irratiaren Hirugarren Eguna ospatuko dute larunbatetik astelehenera bitartean Aezkoa bailaran

■ Karmele Galarzak eta Ane Martinek Aribetik astero sei egunez emititzen dute Aezkoa bailarara


Erredakzioa / Iruñea

IRATI IRRATIAREN Hirugarren Eguna ospatuko dute asteburu honetan Aezkoako bailaran. Irati irratia orain hiru urte jarri zen martxan eta hori ospatzeko asmoz hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Ospakizunak bihar Ariben hasi eta astelehenean bukatuko dira Auritzen. Irratiko langile eta arduradunak Karmele Galarza eta Ane Martin dira eta astero, astelehenera larunbatera bitartean, euren ahotsa Aezkoako bailarako izkin guztietara zabaltzen dute.

Irati irratia egunari hasiera emateko Txotxongilo taldeak *Erreka Mari* antzetzuko du bihar, arratsaldeko sei etan, Ariben. Ordubete geroago, berriz, arratsaldeko zazpietatik aurrera, Ugutz Robles txiste kontalaria ariko da.

Nahaia Robles Aritzta taldeko kantariak ere bere ikuskizuna aurkeztuko du eta ondoren, Itzaina gitarra joleak eta Itsasuko dantza taldeak hartuko dute parte.

Igandean Aribetik Aurizberrira igaroko da jaieguna. Goizean hasiko dira ospakizunak. Hamarretan, Aurizberriko txistulariak ibiliko dira karriketan barrena. Ordubete geroago, berriz, Ederrena pilotalekuan pilota partiduak izanen dira. Hamabiak eta erdietan jokoak egonen dira denentzako eta herrian barrena Aurizberriko fanfarrea ibiliko da kaleak alaitzen. Arratsaldean ere izanen da zer egin. Ordu biak eta erdietan, hasteko, herri bazkaria izanen da Ederrena pilotalekuan. Ondoren, ongi bazkalduta, dantzetako parada izanen dute herritarrek pilotalekuan bertan.



Orain hiru urte sortu zen Irati Irratia.

ARTXIBOKOA

Irati irratia eguna amaitzeko, azkenik, astelehenean arratsaldeko seiak eta erdietan eta Auritzen, pilota jaialdia egonen

da pilotalekuan. Bertako Pilota Eskolako ikasleak ariko dira lehian euren lana herritarrei erakusteko. X

Cabanillas

Euskararen aldeko jai antolatu du herriko AEK-k biharko

■ Cabanillasko taldea joan den urteko urrian sortu zen

Erredakzioa / Iruñea

CABANILLASKO Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) antolatuta, euskararen aldeko jai ospatuko dute bihar eta egun osoan zehar bertako herritarrek, baita Erriberako inguruko beste hainbat herritatik etorritakoek ere.

Bihar egingo duten jaiaren bidez, Erriberan ere «euskara bizirik dela eta bere lekua baduela» azaldu nahi diete AEK-ko kideek bertako biztanle guztiei.

Ospakizunak goizeko hamaika eta erdietan hasiko dira. Ordu horretan, herriko kiroldegian, futbito txapelketa jokatu dute Cabanillasko AEK-ko ikasleek, giroa bertzen hasteko.

AEK-ko ikasleen arteko futbito txapelketaren ondoren, ordu bata eta erdiak aldera, kalejira egiten da herriko karriketan barrena. Tuterako gaiteroak bertan izanen dira giroa alaitzeko, baita Gipuzkoatik etorritako trikitilariak ere.

Arratsaldeko hiruretan herri bazkaria egiten dute AEK-ko ikasle eta irakasleek herriko Kultur-Etxean. Bazkaria amaituta, bost eta erdiak inguruan, bere ikuskizuna aurkeztuko du Cabanillasko dantza taldeak, kiroldegian. Ondoren, leku berean, herri kirolak izanen dira. AEK-ko kideek hartuko dute parte prestatutako joko ezberdinetan. Ekitaldi hauek guztiek irauten duten bitartean, txalapartaren hotsak alaituko du Cabanillasko kiroldegiko giroa.

Herri kirolak bukatuta eta jai egunari behar den bezalako amaiera emateko, kalejira egiten dute AEK-ko ikasle eta irakasleek herriko karrika guztietan zehar, musikaren laguntzaz beti ere.

Cabanillasen joan den urteko urrian hasi ziren AEK-ko kideak klaseak ematen. Oraingoz talde bakarra dago eta beraz hamaika ikasle osatzen dute.

Aurten, beraz, lehen aldiz ospatuko da bertan AEKren jai, baina Cabanillasko ikasle eta irakasleak ezezik, Tuterakoak eta Cascantekoak ere hantxe izanen dira. Cascanten bi ikastalde izan ziren aurreko urtean, baina biak desagertu egin dira aurten. Tuteran, berriz, zazpi talde dituzte egun, osotara 80 bat ikasle.


Erriberako hiriburuan, hain zuzen ere, zortzi urte luze daramate AEK-ko kideek euskara bertako biztanleei irakasten. X

Kaputxinoen bizitzaren erakusketa San Antonion



Kaputxinoen bizitzako objektu anitz ikus daitezke erakusketan.

OSKAR MONTERO



Iruñean San Antonio eta Euzko etxeak dituzte kaputxinoek.

OSKAR MONTERO

# Gogoratu behar diren kaputxinoak

Kaputxinoen bizitzari buruzko erakusketa zabaldu dute San Antonio elizan

**I**ruruko San Antonio kaputxinoen elizan *Kaputxinoen bizitzaren erakusketa* zabaldu dute hil honen 8an. Ordenaren historia, «baina historia bizia» jasotzen dute ikusgai diren gauzek. Objektuez gain, kaputxinoak beraien dira erakusketa honetako ardatz. Hilario Olazaran musikologoa, Salvador Zapirain idazlea, eta batez ere Damaso Intzakoa, Policarpo Iraizozkoa eta Francisco Ondarra euskaltzain osoak dira erakusketa honetako protagonista, Esteban Adoingo ordena XIX. mendean berrezarri zuten kaputxinoarekin batera.

Edurne Elizondo / Iruñea

AZKEN urtea San Antonio elizan ikusgai den erakusketa antolatzen eta prestatzen eman du Jose Anzin aita kaputxinoak. Berau egiteko asmoa, hala ere, aspaldikoa da; eta Anzinek dioenez, «bekatu baten damuaren ondorio» sortu zen: «Gauza asko bota eta betiko galdu ditugu». Egindako bekatu damutu eta 1978. urtean kaputxinoen ondare kultural eta etnografikoa biltzeko lehen urratsa eman zuten ordenako agintariek: misioetatik heldutako edo hildako kaputxinoek utzitako ondarea gordetzeko eta antolatzeko beharra azpimarratu zuten.

Orduz geroztik bildutako ondarea gordetzeko San Antonio eliza aukeratu dute kaputxinoek. Bertan ikusgai dagoen erakusketaren ardatza Esteban Adoingo (1808-1880) aita kaputxinoaren figura da.

Horren inguruan, halaber, kaputxinoek munduan zehar misioetatik bidalitako gauzak, Javier Ziga Etxandik margotu dituen kaputxinoen erretratuetak, Jorge Oteizaren eta Jose Ulibarrenaren eskulturak, erlijio gaia duten zigiluak eta kaputxinoen komentuen agiri eta argazkiak dira, besteak beste, ikusgai.

**Gogoratu behar diren omenez** • *Kaputxinoen bizitzaren erakusketa* osatzen duten atal guztien artean, edonola, Jose Anzinek *Memorandum* izena jarri diona da, ziurrenik, kaputxinoen bizitza horren adierazgarri argiena. Bertan «gogoratu behar dena» bildu du Anzinek. Gogoratu behar direnak, hobeto erranda. Izatez edo egitez nabarmendu diren aita kaputxinoen oroigarria da *Memorandum* atala. Hilario Olazaran, Felipe Murietakoa, Jose Luis Ansorena, Salvador Zapirain *Ataño*, Julian Ihurrekoa, Damaso Intzakoa, Policarpo Iraizozkoa eta Francisco Ondarra dira Jose Anzinek erakusketa nabarmendu dituen aita kaputxino horietako batzuk. Sotana ezezik, euskara ere amankomunean duten ezaugarria da. Erakusketako ardatza den Esteban Adoingoak berak ere euskara izan zuen hizkuntza eta lanabes Nafarroako hainbat herritan zehar emandako meztan. Beaufikatzeko bidean den kaputxino hau Adoainen jaiotza 1808. urtean, eta XIX. mendean Mendizabalaren desamortizazioaren ondorioz bertan behera gelditu zen kaputxinoen ordena berrezarri zuten, 1880. urtean Sanlucar de Barramedan (Cadiz) hil aurretik.


Hilario Olazaran eta Jose Luis

Ansorena, sotana, euskara eta musikarako zaletasuna dituzte ezaugarri amankomun. Musikologoa izan zen Olazaran eta ezagunak dira berak egin dituzten erakusketak. Jose Luis Ansorena, bestalde, Iruñeko Olentzeroa sortu ezezik, Euskal Musikaren Artxiboaren bultzatzaile eta zuzendari izan da. Errenteriko Andramari Abesbatza sortu eta zuzentzen du gaur egun ere.

Felipe Murietakoa eta Salvador Zapirain *Ataño* euskara idatzez bultzatu zuten. Murietakoa filologoa izan zen eta haurren artean euskara bultzatzeko *Umeen deia* eta *Udela* orriak argitaratu zituen. Zapirainek ere aitzurra eta idazluma ditu lanabes Hondarribiko komentuan.

Izen horiez gain, kaputxinoek euskararekin eta euskal kulturarekin izan duten harreman estuaren erakusgarri diren beste hainbat izen aurki daitezke *Memorandum* ataleko erakusketetan barrera. Horietako batzuk Julian Ihurrekoa bezala, euskaltzain argizale izan ziren. Beste batzuk, berriaz, euskaltzain osoak: Damaso Intzakoa, Policarpo Iraizozkoa eta Francisco Ondarra kasu.

Miguel Olasagarre, aita Damaso, Intzan jaiotza 1886. urteko urriaren 19an. Gaztetan ar-



Urtebete eman du Jose Anzinek kaputxinoen bizitzari buruzko erakusketa prestatzen.

OSKAR MONTERO

Kaputxinoen bizitzaren erakusketa San Antonion

tzain ibili ondoren Iruñera joan eta aita kaputxinoekin estudiatu zuen, baita Tuteran ere. 1910. urtean kantatu zuen lehen meza Damaso Intzakoa izena hartuz. Predikari lana betetzeaz gain, itzultzaile eta idazle izan zen eta berak zuzendu zuen lehendabiziko *Zeruko argia* kaputxinoen aldizkaria. Buenaventura Olergikoarekin bultzatu zuen argitalpen hau aita Damasok 1919an. Biek batera, halaber, *Irujarrengo Prantziskotarra* bultzatu eta kaleratu zuten aurretik ere, 1913. urtean zehazki.

Espainiako Gerra Zibilekin batera Ameriketara bidali zuten Damaso Intzakoa kaputxinoen agintariek, beste hainbat eta hainbat kaputxino euskaltzaleekin batera. Euskal Herrira itzuli zenean, 87 urtekin, alde egin aurretik hasitako lana argitaratu eman zuen, *Nafarroako Euskal Esaera Zaharrak* izenburuko, alegia. 1986ko irailaren 22an, ia ehun urte zituela, Iruñeko Extramuros kaputxinoen komentuan zendu zen Damaso Intzakoa.

Policarpo Iraizozkoa 1897. urtean jaiotza eta 1980an zendu zen. Urte askotan Leharoen irakasle izan zen eta kaputxinoen ordenan kargu garrantzitsuenak bete zituen. Erromako kaputxinoen

Kuria Nagusiko idazkari nagusi izan zen, hain zuzen, Iraizozkoa. Euskarari buruzko lan anitz argitaratu zituen, besteak beste, *Jesusen Testamentu Berria* itzuli zuen eta euskal gaietan oso ikasiaz zena.

«Nafarroako indarrik bereziena» Damaso Intzakoa, Policarpo Iraizozkoa, edo Leharozten urte asko eman ondoren egun Iruñeko Ex-

«Gerra aurreko eta gerra ondorengo garaia bereizi behar da nabarmendu du lehenik eta behin Satrustegik. Bere ustez, gerra aurreko denboretan euskararen alde gehien agertu zen erlijio ordena kaputxinoena izan zen. «Oso euskaltzaleak ziren eta inon gauza horietaz hitz egiten ez zenean euren zabaldu zuten horren kezka. Nafarroan nabarmentzen ziren indarrik bereziena kaputxi-

garrantzia ere nabarmentzen du Jose Maria Satrustegik, «bertako bokazioak bertan biltzen baitzituzten, euskaldun peto-petoak». Bertako familietan, gainera, oso barneratuta zeuden kaputxinoak. «Hilero etortzen ziren aitorzak egitera, predikatuak euskaraz egiten zituzten, eta hementi kantu eta liturgietan ere nabaria da euren eragina», Satrustegik dioenez.

«Hori guztia gerrarekin batera pikutara joan zen», azpimarratu du Satrustegik. Aldaketaren zioa, hala ere, kaputxinoen ordenaren beraren barruan ikusten du berak. «Ordenako agintariek euskaltzale guztiak sakabanatu zituzten espreski, hemendik kanpora bota zituzten», Satrustegiren ustez, gerra aurreko giroa ez da inoloz berreskuratu kaputxinoen baitan. X

Francisco Ondarra: «Gerrarekin batera euskaltzaleak hemendik kanpo bidali zituzten, Ameriketara»

Jose Maria Satrustegi: «Lekaroz eta Altsasuko ikastetxei esker, bertako bokazioak bertan bildu zituzten, euskaldun peto-petoak»

tramuros komentuan dagoen Francisco Ondarra bezalako kaputxinoak, ordena honek euskararekin eta euskal kulturarekin izan duen harreman estuaren adierazle dira. Kaputxinoen euskaltzaleasuna Jose Maria Satrustegi Euskaltzaindiko kidea- rekin mintzagai izan dugu.

noena zen garai horretan». Jose Anzinen erakusketan bezala, Damaso Intzakoa edo Policarpo Iraizozkoa dira Satrustegik azpimarratzen dituen izenak, «baina izugarriko taldea ziren». Damaso Intzakoa bultzatu *Zeruko argia* edo *Irujarrengo Prantziskotarra* bezalako aldizkari-

# «Egun ez dago euskaltzaletasunik»

Francisco Ondarra Bakaikuko kaputxinoa Iruñean da orain dela hiru urte

E. E. / Iruñea

AMAREN eraginez erabaki zuen Francisco Ondarra bakaikuarra 1937. urtean kaputxino izan nahi zuela. Altsasuko etxea izan zuen lehena. Bertatik Hondarribia, Zangoza eta Iruñera joan zen. Behin apaiztu eta gero, berriaz, Txilera bidali zuten 1951. urtean bertako kaputxinoak formatzera. Damaso Intzakoa Txilen zegoela ezagutu zuen Ondarra. *Zeruko argia* eta *Irujarrengo Prantziskotarra* gerrarekin desagertu eta aita Damaso Txilera bidali zuten.

Damaso Intzakoa ez bezala —Txilen bere beharra zutela uste zuen—, Francisco Ondarra bertan hamahiru urte eman eta gero, Txile utzi eta 1964an itzuli zen Euskal Herrira. Leharozkoa izan zen bere hurrengo eta orain hiru urtera arteko etxea. Baztanen, bere bi lagunek aurkitu eta eman zioten historiarrak aitzurra baten piztu zion zaletasuna garatu ahal izan zuen. Asteburu guztiak, beraz, trikuharriak eta harraspilak bilatzen eta aztertzen eman zituen. Jorrotu du beste gairik ere. Esteban Adoainen euskarazko testuak argitzera eman ditu, baita hainbat eta hainbat apenez euskarazko predikatuak ere, besteak beste, Juan Berakoa Berako apazarenak. Horretaz gain, Joakin Lizarragaren obra ere aztergai izan du. Azkenekoz, J. Apeztearekin batera, *Jesukristo, Maria eta santuen bizitzak* obraren edizio kritikoa kaleratu du.



Orain hiru urte utzi zuen Leharozko ikastetxea Francisco Ondarra.

OSKAR MONTERO

Hitz gutxitan laburtuarren, Jose Maria Satrustegik erran bezala Damaso Intzakoa eta Policarpo Iraizozkoaren oinordeko da Francisco Ondarra. Beraiek bezala, euskaltzalea. Halaxe azpimarratzen du berak kaputxinoen euskaltzaleasunari buruz hitz egiten hasi bezain pronto: «Euskalduna naiz lehendabizi».

Satrustegik bezala, gerra aurreko eta ondorengo garaia berreztzen du Ondarra ere. Gerra aurrekoak gogoratuz, argi azaltzen du kaputxinoak: «Frailte euskaldun eta euskaltzale asko zegoen, euskara oso maite zute-

nak. Euskaldunari euskal jantzia eman nahi zioten, ez beste-rik». Satrustegik bezala, aita Damaso, aita Policarpo edo Buenaventura Olergikoak bezalako izenak ditu Ondarra ere gogoan. «Gerrarekin batera, ordea, euskaltzaleak kanpora bidali zituzten. Orduan arte, euren aldizkariak argitaratzeko edo predikatuak euskaraz egiteko ez zieten inolako oztoporik jarri baina gerra ailegatu zenean, euskaltzale bultzatzaile zirenak bidali zituzten ordenako agintariek». Damaso Intzakoa Txilera joan behar izan zuen. Policarpo Iraizozkoa, be-

rriz, bertan gelditu zen, «bere beharra baitzuten». Antzeko egoera bizi izan zuen Jorge Riezukoak ere Ondarra dioenez: «Amerikara joan baina 1951. urtean itzuli egin zen Leharozten behar zutelako. Matematikan lizentziatua zen bera».

Gerra aurreko hartara ez da inolaz itzuli kaputxinoen ordena Francisco Ondarra azpimarratu duenez: «Egun kaputxinoen ordena ez dago euskaltzaletasunik. Gehienak nafarrik gara eta Nafarroan ere nolako egoera dagoen kontuan izan behar da. Gizariekin gertatzen dena, hein batean kaputxinoen artean ere gertatzen da».

Francisco Ondarra, hala ere, ez dio euskaltzaletasunari uko egin: «Nik lanean jarraitzen dut, uzten didate, euskaltzain egiten nindutenetik batez ere». 1980. urtean Policarpo Iraizozkoa zendu zenean Euskaltzaindian hutsik gelditu zen lekua Francisco Ondarra bete zuen 1981ean. Egun hura pozik gogoratzen du kaputxinoak. «Bera, San Ignazio Egunean izan zen. Ni euskaltzain oso izendatu ninduten egun hartan bertan, Julio Caro Baroja Euskaltzaindiko ohorezko kide izendatu zuten».

Euskaltzaindian kaputxinoek izan duten presentzia ez da beste garai batzuetako bera gaur egun: «Ni naiz bakarra orain» nabarmentzen du Francisco Ondarra. Euskaltzain urgulerik ere ez dago, «Julian Ihurrekoa izan zen azkena baina haren ondorengoa ez da besterik izan». X

# Oztopoak + Eragozpenak = Ezintasuna

■ Badakit sarri askotan oztopo arkitektoniko eta urbanistikoei buruz hitz egitea aspergarria izan daitekeela, baina ulertu behar duzue mugikortasun murrizteko pertsonontzat ia-ia hil edo bizikoa dela. Egia esan, egundoko morala behar da gizarte honetan bizitzen jarraitu nahi izateko, alde zurrik jakinda, entzun beharko liguketenek apenas egingo digutela jaramonik. Baina zer egingo diogu ba? Badakizue, borroka eta kritika edo bestela heriotza.

Mundu honetan jakina da zer gertatzen zaigun hainbat pertsonari, ditugun arazo pertsonalekin aski ez, eta maiz saiatzen gara beste kontu problematikoz batzuk irtenbideratzen. Neronek ere honi buruz dezente dakit, eta afera da aspaldidanik saiatzen naizela neure hondar aletxoak ekartzten eta jartzen zenbait taldetan, gizarte hau pixka bat hobetuko dugulakoan.

Beno, eta harira zuzen-zuzenean joanez, adierazi behar dut, azken hiru urteotan, besteak beste,

gizarte mugimendu batean ere ari naizela. Lehenik, egoitza Iruñeko Alde Zaharreko kale batean egon zen, eta ongi samar egokitu genuen gorpil-aulkiz sartzeko. Geroago Gaztelu plazako beste leku batera igaro zen, eta eskailerak oso estuak zirenez gero, arrunt zaila gertatzen zitzairen nire lagunei bigarren solairuraino ni igotzea. Eta gurdixka elektronikoan igo nahi baninduten, orduan, zer esanik ez. Baina bi-

zitzaren gora-beherek, azkenean, Iruñeko Tuterakalera eraman dute egoitza. Zehazkiago esatearren, azalduko dut Tuterakaleko 18-2. G letrandagoela orain gizarte mugimendu horren egoitza; hor daramatza dagoeneko hiruzpalau hilabete.

Begira nola diren gauzak; hemen ere gora-behera eta tira-bira ugari ditugu sartu-atera ahal izateko. Azken toki honetan beste aldaera batzuk dauzkagu; ia-ia esan liteke denetatik pixkatxo bat dugula; kanpoan bi eskailera, barruan eta gorago eskailera bat eta bi igogailu, eta azkenik, garaje aldatz bikaina eta barruan igogailu bat gutxienez. Jakina, buru pixka bat duen edonori gogoratzen zaion lehendabiziko gauza honako hau da: «Jaitzi liteke gurdixkan bertan garajera aldapan zehar, eta handik igogailua erabiliz, bigarren solairuraino igo».

Eskaera urtarrean egin zitzaion Jabeen Elkarteari, gorago esandako moduan ibili ahal izateko. Administratzailearen erantzuna otsailaren hasieran jaso zen eta ez zen batere pozgarria

suertatu. Badakizue, askotan jende xehearen logikak «ez du balio handirik»; eta horrelaxe gertatu zitzaigun aldi horretan ere. Hona hemen eman ziguten ihardespena:

«Hartu dugu zuen eskutitza. Baita behar zen jendeari kontsultatu ere, eta ez dute ahalmenik baimena emateko, horrek arauen *alterazioa* lekarkeelako. Sentitzen dugu. Lehen bileran planteatu liteke arazoa, eta abar».

Jakina, denok sor eta lor geratu ginen. Dena den, egiaren izenean, gauza bat argitu nahi dut, alegia, Jabeen Elkarte horretan, Tuterakaleko 18-20-22-24 zenbakietako etxebizitzetakoak bizi dira, baina sotoko plazen jabe guztiak ez omen dira bizi bertan. Hori dela eta, garajetik igogailuraino iristeko zeharkatu behar omen da giltzadun ate bat. Noizbait istilu eta gatazkak izan omen dituzte batzuen eta besteen artean garajea zela-eta, hortik omen datorkie guri giltza uzteko erreparoa; eta, beti bezalaxe, besteen erruak ordaintzen dituz-



tenak, pertsonarik apalena eta batere zerikusirik ez dutenak izaten dira. Kasu honetan, nitaz arduratzen den jendea eta ni neu. Astero-astero, eskailera horietan denetatik praktikatzan dut pittin bat, batzuetan delta-hegala, beste batzuetan parapentea, besteetan planeatzea... Zera, aldi aldikoa, eta beti kontsumitzailearen nahierara. Ah! Orain arte, behin ere ez dugu *istripurik* izan zorteari esker!

Ikusten denez, konponbide teknikoak badago, falta duguna borondate ona da. Izan ere, legetasun, arrazoi eta zentzunari, sentiberatasun eza, legekeria eta itsukeria gailentzen zaizkienean, honelako aldrebeskeriak ikusita ez gaitzeko gehiegi harritu.

Ezintasun horren aurrean, egin dezakedan gauza bakarra da, arazo hau aineratu eta argitaratu, nahi duen guztiak jakin dezan eta lagun diezagun, nahiz eta nik oso ongi dakidan behin ere ez dudala mundu hau ezagutuko behar besteko berdintasun eta zuzentasunean. ■

## Juan Antonio Iza-Zamakola dimarra Seguidillen biltzaile eta beste

■ *Don Preciso se murió y nadie le hace falta* aunitz leku eskasetan berriki arte esan den atsotitz honek izena eman zion gaurko lagunari, Juan Antonio Iza-Zamakola Ozerin Goxenola Beingoetxea —deituren lau geruzetako estratigrafia xumea egi-tearren— jaunari alegia, Arratia aldeko Dima elizateko Indusi auzoko Zamakola etxean 1758ko urtarrilaren 25ean sortu zitzaiguna. Beste hiru anaia gutxienez izan bazituen: Frantzisko Antonio, Maria Diaz-Basurtorekin ezkondurik etxean geratu zena, beraz zilegi bekigu premia zela ustea, Dimako abade geratu zen On Santiago, eta Simon Bernardo, urte berean jaio omen zena, ez dakigu ordea bikia, abendu aldean sortu, edo berri erratua denentz. Azken hau famatuko zen naski XIX. mende hasierako matxinadari bere izena eman zionean, hots, Zamakolada. Hitz guttitan esanda ere, afera honen iturrama zein bilakaera honako hauze izan genituen: 1792ko uztailearen 16an Bizkaiko Jaurerriko Batzar Nagusiek egin bileran Aldama prokuratzaileak Mundakako barran kai berri baten eraikitze proposamena luzatu zuen, azken batean Bilbo hiriak Bizkaiko gainontzeko herriekiko zituen eskubideak zirela-eta mendez mende zetorren isileko aharra salatzen zuena. Bi urte geroago, Konbentzioko gerrak bertan behera deuseztatu zituen asmo hauek guztiak, handiki bilbotarrak bereziki poztu zituen. Bestalde, gatazkan xahutu sosak berreskuratzeko nahian 1796an ezarri arbitrioen banaketetan Bilboko kontsuletza nabarmen onginturik agertu zen, beste prokuratzaileen haserre eragin zuena, eta lezotkeen arazo gaitzagoak alde'edo moldez saihes-teko, Bilboko merkatarien bizkarrean gertatu zen erregeari ordain beharreko saria. Zernahi ere zen gatazka etzen alderatu eta 1801eko maiatzaren 18an aldiroko uholde zorionekoak jazo zirenean, Begoñako Andredenaren iduria hirira behetiratzea liskarra iratxekitzeko pindarra agituko zen alta Begoñarrek zuten higuinari bide emanez bilbotarrak mokoka hasi ziren.

Gure Juan Antoniorengana itzuliz, jakin badakigu Zigoitiako Muruan egin zituela bere lehendabiziko kasketak, 1775ean Madrilera joan aitzinetik. Izan ere, urte horretan Gaztelako hiriburura joan baitzen balizko eskribau lanaren betetzera, 1783. urtera arte lortuko etzuen. Zazpi urteren buruan, ordea, Diman dugu harzara auzakide zeukan Argaiz anderearekin ezkondurik eta Konbentzioko gerran hiriko gualosten kapitain. Bien bitartean, bere lehendabiziko ekoizpen literarioa moldatuko zuen giroa berotzen hasi zen Madril Juan Fernandez Rojas apetzak, *Francisco Agustín Florencio* izengoitiaz, atzerriko zetozkion zitura berri, irakur bedi ilustratu, guztien aurkako saioa 1792an agertarazi zuenean izenburu bitxi honen azpian: *Crotología o ciencia de las castañuelas: instrucción científica del modo de tocar las castañuelas para bailar el bolero y poder fácilmente y sin necesidad de maestro acompañarse de todas las mudanzas de que está adornado este gracioso baile*. Elite eta bilbe satirikoa aisa suma dakioke izkiriatuari. Urte berean, eta *Juanito Lopez Pollnaro* ezizenarekin, *Impugnación literaria a la crotología erudita o ciencia de las castañuelas para bailar el bolero segizio* lana agertu zuen, eta denboran oraino gehiegi hastandu barik ere hirugarren hau, *El triunfo de las castañuelas o mi viaje a Crotópolis*, *Alejandro Moya*-ren izenean. Iza-Zamakola 1795. urtera arte etzen berriz ere Madrilera, baina hartara iritsi bezain lite, eta maiatzaren 14 eta 15eko Madrilgo Egunkarian, ildo horretatik zihoan gutuna karrikaratu zitoten, handik aitzina gehien erabiliko zuen gaitzizaren azpian, hau da, *D. Precioso*, alta aunitz izan baitziren bere nortasuna ezkatatzeko erabili zituen aldaerak: *Bachiller Zocomala*, *El bascongado*, *Don Extravagantísimo* edo *Simón de Errotacochecojuanaren semearena*. ■



Iruñeko Hiria xake torneo itxiko bederatzigarren jardunaldiko partida, 1996ko urtarrilaren 5ean jokatua. **Felix Izeta** (Euskal Herria), 2.495 ELOkoa — **Miguel Illescas** (Katalunia), 2.620 ELOkoa.

1.d4,f5; 2.g3,Zf6; 3.Ag2,g6; 4.Zh3,Ag7; 5.Zf4.  
Ezohiko hasiera izan da.  
5.....d6; 6.d5,c6; 7.Zc3,g5; 8.c6,Zc6; 9.Zd3,h6;  
10.e4,e4; 11.Ze4,Af5; 12.Zf6 xa,Af6; 13.h4,Gg8;  
f4,g5,g5; 15.c3,Da5; 16.0-0,0-0.  
Errege txuria ahulagoa geratu dela dirudi, baina ez da hala. 'g2-ko' alfila ziri aparta dugu.  
17.a4,Eb8; 18.Ae3,Da6; 19.Zb4.  
Jokaldi bikaina, eraso baitakar.  
19.....Zb4; 20.b4,d5; 21.b5,Dd6; 22.a5,Ab2. Era-

soaren truke, peoi bat gutxiago.

23.Ga2,Ac3; 24.a6,b6; 25.Ad4,Ad4; 26.Dd4,e6;  
27.Ge1,Gc8; 28.Gd2,g4; 29.dG-d1,Dc7. Erregeari moztu diote irtenbidea.

30.Ge5,gG-f8. **Ikus koadroa**. Partida alde jartzeko moduan daude txuriak eta ez dute aukera galduko.  
31.Gd5,Dc4; 32.Dg7,Dc7; 33.Gd7,fG-d8; 34.Ac6,e5; 35.Gc7,Gd1 xa; 36.Eg2,Gc7; 37.De5,Ac8;  
38.Ae4,dG-d7; 39.Eg1,Gd2; 40.Eg2,Ad7; 41.Ef1,Ac8; 42.Ee1,dG-d7; 43.f3,f3; 44.Ef2,Gd8; 45.Af3,Gd2 xa; 46.Ee3,dG-d7; 47.Ae4,Gd8; 48.Ef3,Gf8 xa;  
49.Eg2,Gd8; 50.g4. Peoiarekin garaipenaren bila.  
50.....Ag4; 51.Dg5,Gf8; 52.Dd5,cG-f7; 53.Dd6 xa. Beltzek ez dute zer eginik. Partida utzi zuten.



# Malerreka medikuarekin aztoratuta

Doneztebeko aferak ingurua kezkatu du

**D**oneztebeko medikuaren aferak Malerreka aztoratu du aspaldi honetan. Jose Maria Lana langileari hiru urteko kontratua lehengo hilean akitu zitzaion, eta Osasunbideak, legeari jarraituz, euskararen ezagutzak zituen beste mediku bat paratzea deliberatu zuen. Horrek protesta eragin zuen inguruan, sinadura bilketa eta guzti, eta asteartean udalbatzara egin zen aferari buruz.

Alberto Barandiaran / Iruñea

POLEMIKA bizia sortu du inguruan gai honek, ez baita oso ohikoa 1.200 sinadura biltzea mediku bat herrian geldidun, eta eztabaidak ez dira gutxi izan egunotan euskaldunen eskubiak defenditu nahi dituztenen eta medikuak hiru urtetan eskuratutako konfiantza nahiago zuten artean. Afera hasi zen Jose Maria Lanari, fomentoko kontratuek berez duten hiru urteko iraupena akitu ondoren, kontratua amaitu zitzaionean. Ordura arte, bazeuden bi bide lanpostuak betetzeko. Utzi hila-beteko epea, eta mediku berari luzatu kontratua beste hiru urtez, edo beste kontratu bat egin. Osasunbideak, Bertizaranako eta Doneztebeko udalen eskaera jaso ondoren, posibilitate hori aztertu zuen, baina sindikatuek ere presioa egin zuten, eta lanpostuak euskaldunekin betetzeko agintzen duen legea gogorazazi zioten administrazioari.

Horri gehitu egin behar zaio, urtariletik ezartzen ari diren irizpideen arabera, Osasunbideak Lehen Osasun Zentroetan dauden langileen euskarazko ezagutzari buruzko Foru Dekretua bete nahi duela. Donezteben, berez, hiru mediku euskaldun izan beharko lirake, eta bat bera ere ez dago. Horregatik, eta lanpostua lehiaketa publikora atera arte, egiten diren ordezkapen guztiak mediku euskaldunekin egiten dituzte. Doneztebeko Osasun Etxeak 17 herritako biztanleak jasotzen ditu —Eratsunen hasita Donezteberaino, Bertizarana eta Sunbilla barne—, eta bertako euskaldunen kopurua % 85ekoa dela, Nafarroako altuena.

Ingurukoak horrekin pozik ez, eta sinadura bilketari ekin zioten, eta Doneztebeko eta Bertizaranako udalen laguntza ere eskatu. Hauek eskaera onartu eta Iruñera joan ziren Osasunbidera, Jose Maria Lanaren afera konpon zezaten, baina bertan legea betetzeko prest zeudela esan zieten, eta politikoekin hitz egitera joan ziren ondoren. Azke-

nean, hilaren hasieran heldu zen mediku berria, eta protestaldiak baretzen ez zirenez, joan den asteartean udalbatzara egin zen. Miguel San Miguel alkateak (EA) aurkeztutako idazkia onartu zen aho batez.

Idazkiak, kontratazio politika Osasunbideari huts-hutsik dago kiola onartu ondoren, medikuaren lanposturako deialdia lehenbailehen ateratzeko eskatzen dio administrazioari, eta, bide batez, lasaitasuna eskatzen du «buelarik ez duen egoera honen aurrean». «Jendearen, eta bereziki erien mesederako esan behar dugu», dio idazkiak, «ez dela batere ona haserre hau, gure artean dagoeneko lanean ari den mediku berriak oso egoera zaila duelako aurrean». Nolanahi ere, udalbatzak ere onartu zuen presioarekin jarraitzeko, eta bizilagunen eta udalaren ordezkariak Iruñera joango dira aurki Fernando Puras Osasunbideko kontseilariarekin solasteko.

Polemika honen aurrean Langarrak, Malerreko Euskara Taldeak, komunikatu bat kaleratu zuen, eta udalen jarrera salatzen zuten. «Legearen kontra, behin eta berriz, Ley del Vasconce murrizt horrek uzten dituen zirrikitu txiki horien kontra», zioen lerro batek. Udalbatzarraren ondotik ere beste testu bat atera du, eta, euskararen normalizaziorako bidean Osasunbidea ere barruan dagoela gogoratu ondoren, Iruñeko erabakia onartu eta burutzeko besterik ez dute eskatzen. «Honen kontra agertu direnek euren jakinen dute beren jarrera honen zergatia», dio idazkiak. «Guk garbi ikusi dugu mediku euskaldun bat nahi genuela, aukera baze goela eta tenorea ere bazela. Euskararen normalizaziorako bidean ezinbertzeko urratsa dela ikusirik, nolabait eskertu nahi diogu dagokionari azkenean erabaki zuzena hartu izana».

Eztabaidak eztabaida, berria lanean ari da dagoeneko Donezteben. Euskarazko seigarren urratseko maila dauka, eta Leitzan lan polita eginga du, han ere ez zuten nahi-eta alde egitea. X

## Eremu euskalduneko Lehen Osasun Laguntza taldeetako lanpostuen zerrenda

■ Euskararen ezaguera eskatzen da.  
○ Ez da euskararen ezaguera eskatzen.

	Medikuak eta psikiatrak	Erizainak	Fisioterapeutak	Gizarte langileak	Administrazio laguntzaileak	Zelaiak, beste zerbitzuak	Osasun laguntzaileak
■ Altsasu	4	4	1	1	3	-	-
○ Altsasu	3	2	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>7</b>	<b>6</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>3</b>	-	-
■ Auritz	3	3	-	-	1	-	-
○ Auritz	1	1	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>4</b>	<b>4</b>	-	-	<b>1</b>	-	-
■ Elizondo	4	4	1	-	2	-	-
○ Elizondo	3	3	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>7</b>	<b>7</b>	<b>1</b>	-	<b>2</b>	-	-
■ Etxarri-Aranatz	3	3	-	-	1	1	-
○ Etxarri-Aranatz	2	2	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>5</b>	<b>5</b>	-	-	<b>1</b>	<b>1</b>	-
■ Uhart-Arakil	1	1	-	-	1	-	-
○ Uhart-Arakil	4	4	-	-	1	-	-
<b>Guztira</b>	<b>5</b>	<b>5</b>	-	-	<b>2</b>	-	-
■ Irurtzun	3	3	-	-	1	-	1
○ Irurtzun	2	2	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>5</b>	<b>5</b>	-	-	<b>1</b>	-	<b>1</b>
■ Leitza	2	2	-	-	1	-	-
○ Leitza	1	1	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>3</b>	<b>3</b>	-	-	<b>1</b>	-	-
■ Lesaka	4	4	-	1	3	-	-
○ Lesaka	3	2	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>7</b>	<b>6</b>	-	<b>1</b>	<b>3</b>	-	-
■ Doneztebe	3	3	-	1	2	-	-
○ Doneztebe	2	2	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>5</b>	<b>5</b>	-	<b>1</b>	<b>2</b>	-	-
■ Ultzama	2	2	-	-	1	-	-
○ Ultzama	1	1	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>3</b>	<b>3</b>	-	-	<b>1</b>	-	-

Iturria: Nafarroako Boletín Ofiziala

J. APEZTEGIA

# Legeak dioena

■ 1994ko Foru Dekretuak zehazten du euskaldunen kopurua osasun zentroetan

A.B. / Iruñea

OSASUNBIDEKO Lehen Osasun Laguntzarako zentroetan euskararen ezagutza derrigorrezkoa duten lanpostuen zerrenda 1994ko irailaren 5eko 154/1994 Foru Dekretuak zehazten du garbi aski, ondoko koadroan ikus daitekeen bezala. Irizpide hauek oraindik ezarri ez badira ere —ez dago behar adina langile euskararen gutxienezko ezagutza duena—, dekretua bete dadin joan den urritik ari dira lanean Nafarroako mendialdeko Lehen Osasun Laguntzarako Zuzendariordeetan. Bertan arduratzen dira lanpostuen ordezkapenak betetzeko, eta joan den urtariletik, irizpideak ondo inkatu ondoren, Foru Dekretuak dioena betetzeari ekin diote.

Aipatu dekretuan zehazten dira ze proportzio izan behar duten Osasun Zentroek langile euskaldunen eta ez euskaldunen artean, eta garbi zehazten du, halaber, bigarren artikuluan kontratazio berrien politika. «Lanpostuetan dauden hutsak eta zonalde euskalduneko Oinarrizko Osasun Zonetan izango direnak beteko dira, lehenik eta behin, euskararen ezagutza nahikoa —ahozkoa eta idatzizkoa—

erakutsiko duten langileekin, aipatu portzentaia osatu arte».

Foru Dekretuak esaten du era berean langile hauek gutxienez bost urte egon beharko dutela zona berean, eta Osasunbideak bultzatu egingo duela alderdian dagoen langileen euskalduntzea.

Dekretua indarrean jarri ahal izateko, lehen lana izan da gaur egungo langileen euskararen ezagutza mailaren berri izatea, eta inkesta bat egin da zonalde honetako profesionalen artean. Bigarrenik, gutxienezko baldintzak pixkanaka bete ahal izateko, fomentoko kontratuak —Doneztebeko medikuarena, esate baterako— hasi dira bertatik arautzen. «Oraindik ez dakigu zenbat mediku edo profesionalak duten euskarazko ezagutza nahikorik».

**Arantxa Zabala:** «Irizpide bat garbi dugu: lanpostu bat hutsik gelditzen denean, hara joango denak euskarazko ezagutza izan behar du»

azaldu du Arantxa Zabala zuzendariordeak, «baina gutxienez irizpide bat garbi daukagu: lanpostu bat hutsik gelditzen denean, hara joango denak euskarazko ezagutza behar du izan». Jose Maria Lana Doneztebeko medikuari, berez, hiru urteko kontratua egin zitzaion, baina hori bukatutakoan beste langile bat kontratatzea erabaki dute Osasunbidean. «Gu legea betetzera goaz, ez besterik», dio Zabalak.

Doneztebekoa ez da lehendabiziko kasua izan, aurretik Atarrabiako erizain batekin eta Lesakako fisioterapeuta batekin erabaki bera hartu zelako. Zergatik orain zalaparta hau guztia? Orain arte dekretua ez zelako betetzen. Kontuan hartu behar da Donezteben bertan, dekretuak dioela dauden bost medikuarekin hiru gutxienez euskaldunak behar direla, baina denak erdalduak dira. «Orain ari dira ibilbide elebidunei buruz hitz egiten», dio Zabalak, «hau da, toki guztietan egon behar duela euskaraz hitz egiteko profesionalik, baina hori orain planteatzen garena baino askoz ere urrutiago dago. Legeak dioena bete ondoren eman beharreko urratsa litzateke hori». X

Langarra taldeak, euskararen normalizaziorako bidean Osasunbidea ere barruan dagoela gogoratu ondoren, Iruñeko erabakia onartu eta burutzeko eskatu du

◆ Oskar Lasa ◆ Pilotaria

# «Ezustekoa eman dezaket»

**B**igarren Mailako azken txapela izan daitekeena eskuratu zuen joan den larubatean Oskar Lasa Etxarri-Aranazko pilotariak. Iaz bezala, Karmelo Ariznabarretari 22-4 nagusitu zitzaion nafarra Ogeta pilotalekuan. Bigarren Mailakoa bukatuta, Lehen Mailako txapelketa hasiko da igande honetan. Lehen Mailakoan Armendariz izanen du Lasak lehen aurkari. Partidu zaila izanen dela uste badu ere, ezustekoa emateko prest agertu da Etxarri-Aranazkoa.

Edurne Elizondo / Iruñea


NAFARROA Squash Klubean aurkitu dugu Oskar Lasa. Entrenatzen hasi aurretik gurekin hitz egiteko denbora izan du. Bigarren Mailako txapela irabazi ondoren poz-pozik dago eta berehala igartzzen zaio aurpegian. Lehen Mailako txapelketa da orain bere erronka nagusia.

■ Iaz bezala, Karmelo Ariznabarretari garaitu eta Bigarren Mailako txapela eskuratu duzu. Iazko markagailua eta aurtengo, ordea, oso ezberdinak izan dira. Zer aldatu da urte honetan?

Batez ere prestakuntza fisikoa aldatu dela uste dut, asko gainera, orain hobeki nago. Aurten, gainera, estelar asko jokatu dut eta horrek esperientzia ematen du, asko nabaritzen da. Erosoago egon naiz kantxa barruan horren ondorioz. Karmelo Ariznabarretari, hala ere, oso gaizki aritu zen eta horregatik izan zen hainbestekoa bion arteko aldea markagailuan.

■ Pre akuntza fisikoki dagoz, zer aldatu duzu?

Nire bakarrak entrenatzen nintzen eta orain, berriz, Tasio del Arcorekin ibiltzen naiz. Alde handia dago, noski. Gaur egun,



Bigarren Mailako buruz buruko txapelduna da Oskar Lasa. ARTXIBOKOA

gainera, argi dago fisikoki puntuan egotea oso garrantzitsua dela pilotariarentzat. Kantxara ateratzen asko nabaritzen da hori.

■ Iaz, hain zuzen, Bigarren Mailako txapelketa nahiko nekaketa bukatu zenuen eta ez zinen ongi ailegatu Lehen Mailakora.

Bai. Lehendabizi bikoteka hasi ginen eta lau hilabete aritu ginen jokatzeko. Jarraian buruz buruko jokatu genuen eta azkenean lesio asko izan nituen. Partidu bat galdu nuen Irazolaren kontra eta azkenik utzi behar izan nuen, oso

gaizki nengoelako.

■ Aurten iaz baino hobeto zaude, beraz?

Bai. Aurten ezberdina da. Bi hilabetez aritu naiz entrenatzen eta fisikoki oso ongi nagoela uste dut. Iaz, hain zuzen, ez ginen asko entrenatu eta hori nabaritzen da.

■ Lehen Mailako txapelketari dagokionez, zer espero duzu?

Zaila da erratea. Lehen partidua, gainera, Armendarizen aurka dut eta bera asko aritzen da buruz buru. Nire asmoa txapelketa ona egitea da eta, hasteko, ea lehen partidua irabazten dudan. Gero ikusiko dugu, partidu guztiak ezberdinak baitira. Bestalde, momentu onean nagoela uste dut eta, gainera, ez dut deus galtzekorik. Hori ona da, nerbiarik gabe ateratzen zarelako kantxara. Ezustekoa emanen dut agian.

■ Iaz Lehen Mailako txapelketa hasi ondoren berriro jaitsi zinen. Lehenengoari eustea al da orain zure erronka?

Bai, noski, pilotari handiekin ibili nahi dut. Bigarren Mailako lehen txapelketa irabaztean ilusio handia zen niretzat Lehen Maila. Berriro jaitea oso gogorra izan zen. Aurten gauzak aldatu egin dira, esaten dutenez Bigarren Mailako txapelketa kendu egingen baitute. Beraz, lasaiago atera gaitzeko kantxara.

■ Armendarizen aurkako partidua, hala ere, ez da ziurrenik igandekoa bezain erraza izanen.

Bigarren Mailako txapela irabazi izanak Lehen Mailako txapelketa gogoz hasteko indarra ematen dit, konfiantza. Hala ere, lehen partidua beti izaten da oso

s o s l a i a

Etxarri-Aranazko biztanleak pozik dira. Orain 24 urte bertan jaiotako Oskar Lasak, Lasa III.ak, Karmelo Ariznabarretari 22-4 garaitu ondoren Bigarren Mailako txapela eskuratu zuen joan den larubatean Gasteizko Ogeta pilotalekuan.

Oskar Lasak orain hiru urte, 1993. urteko abuztuaren 10ean, egin zuen debuta profesionalean, Zarautzen. Orduz geroztik, Bigarren Mailako buruz buruko txapela bitan irabazi du jarraian, larubatean bigarren aldiz eta iaz lehendabizikoz. Bigarren Mailako binakako txapelketan ere finalista izan zen Etxarri-Aranazkoa iaz.

Bigarren Mailako txapelketa bukatuta, Lehen Mailakoa du orain helburu Oskar Lasak. Txapelketa igande honetan bertan abiatuko da. Lasak, ordea, datorren astean du lehen partidua eta Armendariz izanen du lehen aurkari. Ez da, ziurrenik, igandekoa bezain partidu erraza izanen, baina Lasak ezustekoa emateko gogoa du.

gogorra eta zaila izanen da Armendariz garaitzea, oso ongi ari baita. Bere eskuina oso ona da, nahiz eta ezkerrekin ez hain ongi ibili. Eskuinarekin, hain zuzen, min handia egiten du Armendarizek.

■ Beloki eta Eugirekin ibili zara entrenatzen. Kantxan, hala ere, aurkari izanen dira. Nola ikusten dituzu?

Eugi oso ongi dagoela uste dut. Hala ere, beste txapelketa batzuetara ere oso ongi ailegatu baina kantxan urduri ibili da. Aurtengo txapelketan ezustekoa emanen du agian. Beloki, berriz, faboritua da niretzat, gaur egun bera da onena. Errandonea eta Arretxe ere ez dira ahaztu behar. Errandonea, adibidez, ez dirudi oso ongi ari denik, baina beste batzuetan ere justu hasi eta txapelketak aurrera egin ahala hobera egin du. Joan den urteko txapelketarekin alderatuz gero, dena dela, aurtengo oso ezberdina izanen dela uste dut nik. Pilotariak txapelketaren hasieran nola dabilzan ikusi beharko dugu, beraz.

«Armendariz garaitzea zaila izanen da, baina momentu onean nago eta ez dut deus galtzekorik»

P A N E  
LUCRANDO

ZALDI EROA

kultura

Leo Mallet  
eleberrigile  
frantziarra hil da

■ Atzo eman zioten lur  
Nestor Burma  
detektibe  
ezagunaren  
sortzaileari

Ele / Paris

LEO MALLET poeta eta idazle  
frantziarra bihotzekoak jota  
hil zen igandean, bere 87. urtebetetzearen bezperan, fami-

